

ANTOLAMENDUKO ZENBAIT INFORMAZIO

BISITORDUAK:

Zuzendaritza: 9:00etatik 11:00etara

Ordu hauetan ezin baduzue, zuen seme-alaben bitartez edo telefonoz beste ordu bat zehaztu dezakezue.

Jantokiko arduraduna:

Berarekin hitz egiteko goizeko 9:00etatik 10:00etara etor zaitezke eskolara edo telefonoz dei egin dezakezue 10:00etatik 11:00etara.

Guraso Elkarte: 9:00etatik 9:30era.

Iradokizunen buzoia ere badago eskolako sarreran.

IRAKASLEEKIKO BILERAK:

- Irailean zehar maila bakoitzeko gurasoekin bilera egingo da, maila eta zikloaren ezaugarriez informatzeko.
- Edozein irakaslerekin (tutoreekin edo espezifikoekin) elkarrizketak izateko eguna ASTEARTEA izango da. Elkarrizketak aldez aurretik hitzartu behar dira, eta gurasoek zein irakasleek eskatu ahal dituzte. Astearteetan ez bada posible etortzea, dagokion irakasleari jakinarazi diezaiokezue egun eta ordu egokia finkatzeko.
- Ikasturte amaieran Haur Hezkuntzako tutoreek guraso guztiei dei egingo diete ikaslearen garapenaren berri emateko.
- Eskolako dokumentu akademikoak gurasoen eskura daude Zuzendaritza bulegoan. Baita eskolako web orrialdean ikus ditzakezue ere.